

KULTURA SAILA**2998**

337/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, eskola kirola arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

Eskola Kirolari buruzko 160/1990 Dekretuaren 14. atalean eskoletako kirol maila ezberdinetan izan beharreko iharduera esparruak ezartzen dira: benjamin aurrekoak, ikastetxean; benjaminak, eskualdean; kimu eta haur-mailak, Autonomia Elkartean.

Aipatutako 160/1990 Dekretua indarrean jarri zene-tik izandako esperientziak erakusten digunez, egokia-go da kimu mailan egiten diren kirol txapelketak Lurralde Historikoetara mugatzea eta, horrenbestez, beharrezkoa da aipatutako atala moldatzea.

Bestalde, beste bi puntu berri gehituko zaizkio 14. atalari. Erantsitako zation helburua, beharrezko diren zenbait salbuespen ezartzea da, kirol motetakoren baten ezaugarriek hala eskatzen dutenean, esparru ezberdine-tako txapelketak ere egiteko modua egon dadin.

Horrenbestez, Kultura sailburuak proposatuta, Euskadiko Kirol Batzordeak egindako txostena ikusi eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko uztailaren 28an bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

Atal bakarra.– Eskola Kirolari buruz ekainaren 5ean onartutako 160/1990 Dekretuaren 14. atala aldatzea, honako modu honetara geratuko baita aurrerantzean:

«14. atala.– 1.– Benjamin aurreko, benjamin, kimu eta haur mailetako txapelketak honako esparrutan burutuko dira:

- a) BENJAMIN AURREKOA: Ikastetxean.
- b) BENJAMIN-SAILA: Eskualdean.
- c) KIMU-SAILA: Lurralde Historikoan.
- d) HAUR-SAILA: Autonomia Elkartean.

2.– Benjamin aurreko eta benjamin sailetan, kirol motetakoren baten ezaugarriek hala eskatzen dutenean, Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek baimena eman ahal izango dute, salbuespen gisa, txapelketak goiko hurrengo mailan egin daitezen.

3.– Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, kirol motetakoren baten ezaugarriek hala eskatzen dutenean eta salbuespen gisa, baimena eman ahal izango du Kimu-sailak Euskadiko Txapelketa edo Jokuetan parte har dezan. Era berean, haur-saileko ordezkariak Elkartez kanpoko txapelketetan parte har dezaten baimena ere eman ahal izango du.»

DEPARTAMENTO DE CULTURA**2998**

DECRETO 337/1994, de 28 de julio, de modificación del Decreto que regula el deporte escolar.

El Artículo 14 del Decreto 160/1990, sobre deporte escolar, define los ámbitos de actuación para las diferentes categorías deportivas escolares: prebenjamín, centro escolar; benjamín, comarca; alevín e infantil, Comunidad Autónoma.

La experiencia acumulada desde la entrada en vigor del citado Decreto 160/1990 aconseja limitar las competiciones deportivas que se celebran para la categoría alevín al ámbito de los Territorios Históricos por lo que se hace necesario revisar el artículo citado.

Por otro lado, se incluyen dos nuevos puntos al artículo 14. Estos añadidos tienen como finalidad establecer las excepciones necesarias para que cuando las propias características de alguna modalidad deportiva así lo demanden, puedan celebrarse competiciones de diferente ámbito.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Cultura, previo informe del Consejo Vasco del Deporte y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de julio de 1994,

DISPONGO:

Artículo único.– Modificar el artículo 14 del Decreto 160/1990, de 5 de junio, sobre deporte escolar, que quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 14.– 1.– Las competiciones para las categorías prebenjamín, benjamín, alevín e infantil, se desarrollarán en los ámbitos siguientes:

- a) PREBENJAMIN – Centro escolar
- b) BENJAMIN – Comarca
- c) ALEVIN – Territorio Histórico
- d) INFANTIL – Comunidad Autónoma

2.– En las categorías prebenjamín y benjamín, cuando las propias características de alguna modalidad deportiva así lo demanden, los Organos Forales competentes de los Territorios Históricos podrán autorizar, de forma excepcional, la celebración de competiciones en el ámbito inmediatamente superior.

3.– El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, cuando las propias características de alguna modalidad deportiva así lo demanden, de forma excepcional, podrá autorizar la participación en los Juegos o Campeonatos de Euskadi para la categoría alevín. Asimismo, podrá autorizar la participación de representantes de la categoría infantil en competiciones de ámbito supracomunitario.»

AZKEN XEDAPENA

Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko uztailak 28.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

Agintariak eta Langilegoa

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

INDUSTRI ETA ENERGI SAILA

2999

321/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Enerjia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia – CADEM., S.A. izendun Sozietate Anonimoko zuzendari nagusiak bere kargua utz dezala erabakitzen duena.

Enerjia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia – CADEM., S.A. izendun Sozietate Anonimoa sortzeari buruzko otsailaren 14ko 19/1983 Dekretuko 7. atalean xedatzen denaren arabera, Industri eta Energi sailburuaren proposamenez eta Jaurlearitzaren Kontseiluak 1994ko uztailaren 28an egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Atal bakarra.– Enerjia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia – CADEM., S.A. izendun Sozietate Anonimoko zuzendari nagusiak, Juan José Alonso Ruiz jaunak, bere kargua utz dezala. Egin dituen zerbitzuegatik eskerrak ematen zaizkio.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko uztailak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri eta Energi sailburua,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGÍA

2999

DECRETO 321/1994, de 28 de julio, por el que se dispone el cese del Director General de la Sociedad Anónima Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero – CADEM. S.A.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 del Decreto 19/1983, de 14 de febrero, de constitución de la Sociedad Anónima Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, a propuesta del Consejero de Industria y Energía, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el día 28 de julio de 1994,

DISPONGO:

Artículo único.– Cesar a D. Juan José Alonso Ruíz, como Director General de la Sociedad Anónima Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, CADEM, S.A., agradeciéndole los servicios prestados.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria y Energía,
JON IMANOL AZUA MENDIA.